



ERANSKINA

**GARDENTASUNARI ETA INFORMAZIO  
PUBLIKOA ESKURATZEARI BURUZKO  
URTEKO TXOSTENA**

**(2019. urtea)**





# Aurkibidea

## Sarrera eta helburua

### 1. Gobernu Irekiaren ataria: Araba Irekia

- 1.1. Aurkezpena
- 1.2. Araba Irekian gehien kontsultatu diren edukiak

### 2. Publikotasun aktiboa

- 2.1. Erakundeei buruzko informazioa, antolamendukoa, plangintzakoa eta ondareari buruzkoa.
- 2.2. Foru Arau honen aplikazio eremuko erakundeetan erantzukizun gorena duten pertsonen eta goi kargudunen buruzko informazioa.
- 2.3. Garrantzi juridikoa daukan informazioa.
- 2.4. Kontratazioari, hitzarmenei eta dirulaguntzei buruzko informazioa.
- 2.5. Ekonomiari, finantzei eta aurrekontuei buruzko informazioa eta informazio estatistikoa.

### 3. Arabako Foru Aldundiaren erakunde publikoak

- 3.1. Foru erakunde autonomoak
- 3.2. Foru sozietate publikoak
- 3.3. Foru fundazio publikoak
- 3.4. Foru partzuergo publikoak

### 4. Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea

- 4.1. 2019an jasotako eskaerak
- 4.2. Gehien kontsultatu diren gaiak
- 4.3. Ebazpenen edukia
- 4.4. Eskatzaileen profila
- 4.5. Eskaeren hizkuntza

## Ondorioak



## Sarrera

Gardentasunaren xedea da herritarrei garrantzizkoa den informazio publiko guztia ematea da, bai eta indarrean dagoen araudiaren arabera eskatzen duten informazio guztia ere, ezagutzera emateko nola funtzionatzen duten foru erakundeek, nola gauzatzen dituzten beren eginkizunak eta nola kudeatzen dituzten baliabideak. Era horretan, konfiantzazko harremana izan daiteke herritarrekin; Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren erakunde zilegitasuna indartzen da, eta kontuen berri ematen laguntzen du.

2017ko otsailaren 21ean Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasunaren, herritarren parte hartzearen eta gobernu onaren 1/2017 Foru Araua indarrean sartu zenetik, hura betetzeko hainbat neurri onartu eta ezarri ditu Arabako Foru Aldundiak:

- Egitura dekretuak aldatu ditu, 1/2017 Foru Araura egokitzeko. Foru Arau horretan, bertan ezarritako funtzioak egikaritzeko administrazio unitateetako arduradunak zehazten dira, gardentasuna, herritarren parte hartzea eta informazioa eskuratu ahal izatea sustatzeko.
- Gardentasunaren Foru Kontseilua sortu du, Arabako Foru Aldundiak eta foru sektore publikoa osatzen duten gainerako erakundeek informazio publikorako sarbidea esanbidez edo presuntzios ukatzen dieten herritarrek ukatze horien kontra jarritako erreklamazioei erantzuna emateko.
- Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko 29/2017 Dekretua onetsi du.
- 2018ko martxoan, Arabako Foru Aldundiaren Gobernu Irekiaren Ataria aurkeztu zuen jendaurrean.
- Arabako Foru Aldundia OGP Euskadi ekimenaren partaide da, EAEko gainerako erakundeekin batera. OGP (Open Government Partnership / Gobernu Irekiaren Aliantza) alde anitzeko mundu ekimena da, gobernuen konpromiso zehatzak bermatu nahi dituen, gardentasuna sustatzeko, herritarrak gaitzeko eta gobernagarritasuna sendotzeko. Foru Aldundia, Gasteizko Udalarekin batera, Open Eskola, herritarrentzako eskola irekiko ereduaren konpromisoaren buru da.
- **Arabako Foru Aldundiak, Añanako Kuadrillarekin batera, herritarrentzako eskola irekiko ereduaren esperientzia (OPEN ESKOLA) sustatu du, zeina OGP Euskadi ekimenaren esparruan gauzatu baita, Añanako eskualdean.**
- Arabako Foru Aldundirako Gobernu Ireki estrategia bat sortzeko elkarlan prozesua gauzatu du.



## Helburua

Txosten honen helburua da Arabako Foru Aldundiak 2019. urtean gardentasunari buruz egindako lanaren berri ematea, eta Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasunaren, herritarren parte hartzearen eta gobernu onaren 1/2017 Foru Arauaren 28. artikulua betetzea.

Alderdi hauei buruzko argibideak jaso dira txostenean:

- a) Arabako Foru Aldundiko sail bakoitzak eta foru sektore publikoko gainerako erakunde bakoitzak noraino bete dituen publikotasun aktiboaren arloko betebeharrak.
- b) Gobernu Irekiaren Atarian gehien kontsultatutako edukiak.
- c) Zerbitzu bakoitzean informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen egikaritzea:
  - Aurkeztutako eskaeren kopurua
  - Zenbat eskaera ebatzi diren
  - Ebazpena emateko batez besteko epea
  - Guztiz, partzialki edo hirugarren pertsonen aurkakotasunarekin onetsitako eskaera kopurua, eta azken kasu bi horietan, horretarako arrazoiak
  - Ezetsitako edo onartu gabeko eskari kopurua eta horren arrazoiak
  - Sarrien eskatzen den informazioa
  - Eskatzailearen profila (adin tartea, sexua eta eskaeran erabilitako hizkuntza)
- d) Gardentasunaren alorrean foru araubidea aldatzeko iradokizunak.

Foru Gobernu Kontseiluari txostena aurkeztu ondoren, Foru Gobernu Kontseiluak Arabako Batzar Nagusiei bidaliko die eta Arabako Foru Aldundiaren Gobernu Irekiaren atarian argitaratuko da.



# Gobernu Irekiaren ataria: Araba Irekia

## 1.1 Aurkezpena

1/2017 Foru Arauaren 4. artikuluan Gobernu Irekiaren Ataria arautzen da telekomunikazioetako sare publikoetan eskuragarri dagoen webgunea bezala. Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren eta herritarren arteko interakziorako lekua da; ekintza publikoa modu parte hartzailean eta erantzukizun partekatuarekin kudeatzera bideratuta dago, eta bertan gauzatzen dira gardentasunaren, parte hartzearen eta kontu ematearen printzipioak.

Araba Irekiaren bidez publikotasun aktiboko informazioa eskuratzea errazten da, eta horren bitartez egikaritu daiteke informazio publikoa eskuratzeko eskubidea.

Araba Irekiaren helburuak:

- a) Herritarrentzako eskuragarri jartzea 1/2017 Foru Arauan oinarrituz publikotasun aktiboaren betebeharre lotutako informazioa.
- b) Herritarren aditze aktiboa eta beraien eta foru sektore publikoaren arteko elkarriketa sustatzea, jardun publikoa beraien eskaeretara egokitzeko.
- c) Herritarrek gai publikoetan parte eta esku hartzeko bideak ezartzea, Arabako Lurralde Historikoaren gobernantzan lagundu dezaten jardule aktibo modura.
- d) Herritarren beharrianak identifikatu eta baliabideak eskuratzea, herritarrek benetan parte har dezaten gai publikoetan.

**Araba Irekia ekimeneko edukiak modu argian, errazean, egituratuan eta formatu berrerabilgarrietan argitaratzen dira**, herritar guztiek ikusi ahal izan ditzaten. Gainera, edukiak eguneratuta daude, eta argitaratzen den eta zaharkitua geratzen den informazioari buruzko informazio historikoaren gordailutzat ere balio du.

Araba Irekian, **bereizkeriarik gabeko hizkera** erabiltzen da, emakumeak eta gizonak berdin ikusgai jartzen dituena. Gainera, informazio edukietan eta txertatzen zaizkien irudietan, **kontuan hartzen dira oreka, berdintasuna eta askotarikotasuna, eta estereotipoak saihesten dira**, eta emakumeak bizitzako arlo guztietan agertzen direla erakutsi (gizartea, politika, ekonomia eta kultura).



## 1.2 Gobernu Irekiko atarian izandako bisitak: Araba Irekia:

Araba Irekian gehien ikusi diren atalen analisia egiteko Google Analytics aplikazioa erabili da.


2019. urtean, webguneek 398.920 bisita izan dituzte. Saio bakoitzeko bisitak 62.486 izan dira guztira.

### 1.2.1. Gehien ikusi diren edukiak:

Foru Aldundiko sailei buruzko web orriek jaso dute bisitarik gehien 2019. urtean. Horrez gain, interesgune nagusiak hauek izan dira: enplegatu publikoak, gobernu plana, informazio publikoaren katalogoa eta aurrekontuei buruzko informazioa.

2018. urtearekin alderatuta, ez da aldaketa handirik izan ikusitako edukiei dagokienez.


## Araba Irekia atarian gehien kontsultatutako edukiak






- **Adina:** Araba Irekia gehien bisitatu duten erabiltzaile gehienak 35 eta 44 urte bitarteko pertsonak dira. Datu hori iazko bera da.

## Adina



- **Sexua:** laz bezala, atarira sartu diren emakumeen eta gizonezkoen ehunekoak oso parekoak dira.

## Sexua





## 2- Publikotasun aktiboa

Publikotasun aktiboa izan dadin, Arabako Foru Aldundiak eta foru sektore publikoko erakundeek informazio eguneratua argitaratu behar dute aldizka, haien jardunaren gardentasuna bermatzeko Arabako herritarrei.

Publikotasun aktiboaren helburua da **gardentasun handiagoa lortzea, antolaketa kulturalen elementu gako bihurtzeko.**

Gardentasun betebeharrekin lotutako informazioa eskuragarri dago Arabako Foru Aldundiaren Gobernu Irekia atarian.

Publikotasun aktiboari informazio publikoa legez eskuratzeko eskubidearen mugak ezartzen zaizkio, eta, bereziki, datu pertsonalen babeserako eskubidearenak. Hori dela eta, informazioan babes bereziko datuak daudenean, informazioa argitaratu aurretik datu horiek bereizi egin behar dira.

1/2017 Foru Arauan honako eduki espezifiko hauek ezarri dira publikotasun aktiboko eremu ezberdinetan argitaratzeko:

- 1) Erakundeei buruzko informazioa, antolamendukoa, plangintzakoa eta ondareari buruzkoa.
- 2) Foru Arau honen aplikazio eremuko erakundeetan erantzukizun gorena duten pertsonen eta goi kargudunen buruzko informazioa.
- 3) Garrantzi juridikoa daukan informazioa.
- 4) Kontratazioari, hitzarmenei eta dirulaguntzei buruzko informazioa.
- 5) Ekonomiari, finantzei eta aurrekontuei buruzko informazioa eta informazio estatistikoa.

Txosten honetan jaso da puntu puntu zenbateraino bete diren, foru araua kontuan hartuta.

### **2.1 Erakundeari eta haren antolamenduari, plangintzari eta ondareari buruzko informazioa**

**(22. artikulua) Erakundeei buruzko informazioa, antolamendukoa, plangintzakoa eta ondareari buruzkoa**

1. *Erakunde eta antolakuntza informazioa:*

- a) *Bete behar dituzten eginkizunak.*
- b) *Aplikatzeko zaien araudia.*
- c) *Antolamendu egitura. Organigrama eguneratua zehaztu behar da, organo guztien arduradunak identifikatuta.*
- d) *Egoitza non dagoen, jendearen arretarako ordutegia eta harremanetarako bideak.*





- e) *Langile kopurua: urteko ordainsari osoak, tartearen, mailaren eta lanpostuaren arabera; langile finkoen eta aldi baterako langileen ehunekoak; erantzukizuneko lanpostuak; esleitutako hizkuntza eskakizunak, eta egiaztatutako ehunekoak; eta libreki izendatu eta kargutik kendu daitezkeen konfiantzazko kargudun, aholkulari edo laguntzaileen kopurua. Datu horiek guztiak sexuaren arabera xehatu behar dira.*
- f) *Lan eskaintza publikoa, edo langile beharrianak kudeatzeko antzeko tresnaren bat, eta hautaketa prozesuak.*
- g) *Liberatu instituzionalak zenbat diren, euren sindikatuen arabera sailkatuta, eta urtean zenbat ordu hartzen dituzten.*
- h) *Langile publikoei bateragarritasuna baimentzeko edo onartzeko emandako ebazpenak.*
- i) *Aholkularien eta konfiantzazko karguen zerrenda, bai eta haien kargu uzteak. Adieraziko da zein organori atxikiak diren eta zein diren beren zereginak.*
- j) *Aurkeztutako administrazioarekiko auzi errekurtsoen urteko txostena*

2. *Urte planak eta programak eta hainbat urterakoak:*

*Foru Administrazioak eta foru erakunde autonomoek argitara emango dituzte helburu zehatzak ezartzen dituzten plan eta programak, urtekoak nahiz urte anitzekoak, eta horiek betetzeko aurreikusitako ekintzak, baliabideak eta epeak. Betetze maila eta lortutako emaitzak aldian behin ebaluatu eta argitaratuko dira, neurketaren eta balorazioaren adierazleekin batera.*

*Halaber, arau honen aginduz egiten diren ebaluazioak sistematikoki argitaratuko dira; horri dagokionez ez da beste mugarik izango indarreko legerian ezarritakoak baino*

3. *Aurreko horiez gainera Arabako Foru Aldundiak informazio hauek ere argitaratuko ditu:*

- a) *Bere jabetzako ondasun higiezinak eta eskubide erreala daukan ondasun higiezinak zerrenda, eta bakoitzari ezarritako erabilera edo zerbitzua; bakoitza zein saili edo erakunderi atxikita edo zein entitateari lagata dagoen.*
- b) *Parte hartzen duen erakunde publiko eta pribatuen oinarritzko datuen zerrenda. Kasuan kasuko partaidetza mota eta erakunde horien web orrietan sartzeko estekak jarri behar ditu.*

***Foru aldundiak 22. artikuluko eduki guztiak argitaratu ditu, 22.2. artikuluari dagozkion bi eduki izan ezik.***

***Sistematizazio prozesua gauzatzen jarraitzen dugu, planak zenbateraino bete diren aztertzeko eta lortutako emaitzak ebaluatzeko.***

## **2.2 Erakundeetan erantzukizun gorena duten pertsonen eta goi kargudunen buruzko informazioa.**

**(23. artikulua) Foru arau honen aplikazio eremuko erakundeetan erantzukizun gorena duten pertsonen eta goi kargudunen buruzko informazioa**



- a) *Pertsona horien identifikazioa, profila eta lan ibilbidea.*
- b) *Urtean jasotzen dituzten mota guztietako soldatak edo ordainsariak; kargua utziz gero, jasotako kalte-ordainak.*
- c) *Beste organo eta erakunde batzuetan dauzkaten karguak edo ordezkariak, eta dauzkaten bestelako kargu publikoak.*
- d) *Organo eskudunak egin beharreko jardueren bateraezintasunaz emandako ebazpenak.*
- e) *Arabako Foru Aldundiko jardueren eta ondasun interesen erregistroen araudian xedatzen denaren arabera, ALHAOn argitaratu beharreko ondasun eta interesen aitorpenak eta sei hilean behin Arabako Batzar Nagusietara aitorpenez bidali beharreko informazioa (kopurua eta motak), aitortu beharra bete ez duten kargudunen kopurua eta kargudunok nortzuk diren. Nolanahi ere, ez dira emango ondasun higiezinak zehazki non dauden adierazten duten datuak, eta titularren pribatasuna eta segurtasuna bermatuko dira.*
- f) *Jardueren agenda instituzionala; zehaztuko da diputatu nagusiarena eta Foru Gobernu Kontseiluko gainerako kideena, eta gutxienez adieraziko dira 44. artikulua aipatzen duen erregistroan inskribatuta dauden norbanako edo entitateekin izandako bilerak edo topaketak.*
- g) *Diputatu nagusiak eta Foru Gobernu Kontseiluko gainerako kideek beren zereginak betez egindako nazioarteko bidaia baten ondorengo hilabetean, adieraziz bidaia horren xedea.*

### **Arabako Foru Aldundiak 23. artikuluko edukiak argitaratu ditu.**

## **2.3 Garrantzi juridikoa daukan informazioa**

### **(24. artikulua) Garrantzi juridikoa daukan informazioa**

- a) *Foru arauen proiektuak, araugintzako foru dekretuen proiektuak eta zerga premiazko araugintzako dekretuen proiektuak, eta horiek guztiak sortzeko egiten diren espedienteetako memoriak eta txostenak, betiere Diputatuen Kontseiluaren onarpenarekin.*
- b) *Araugintzako foru dekretuen proiektuak entzunaldiaren edo jendaurreko informazioaren izapidea egiten denean argitaratuko ditu. Entzunaldiaren edo jendaurreko informazioaren entzunaldia egin behar ez bada, Arabako Foru Administrazioaren Aholku Batzordeari irizpena eskatzen zaionean argitaratuko da; irizpena emandakoan, publikotasuna aplikatuko zaio.*
- c) *Herritarren parte hartzea egonez gero, prozesuaren memoria eta ondorioak.*
- d) *Indarreko legeria sektorialaren arabera izapidetzean jendaurrean jarri behar diren dokumentuak.*
- e) *Foru Gobernu Kontseiluaren gai zerrendak, aurretiaz, eta Kontseiluak hartutako erabaki guztien laburpenak, hirurogeita hamabi orduko epean.*
- f) *Arabako Lurralde Historikoan indarrean dagoen araudia; beti egon behar da eguneratuta eta herritarren eskura.*
- g) *Gidalerroak, jarraibideak, erabakiak, zirkularrak eta norbanakoek edo beste organo batzuek egindako kontsulten erantzunak, baldin eta zuzenbidea interpretatzen badute edo ondorio juridikoak badituzte.*



## **Arabako Foru Aldundiak 24. artikuluko edukiak argitaratu ditu.**

### **2.4 Kontratazioari, hitzarmenei eta dirulaguntzei buruzko informazioa**

#### **(25. artikulua) Kontratazioari, hitzarmenei eta dirulaguntzei buruzko informazioa**

*Kontratazio jarduerari dagokionez:*

- a) *Kontratu guztiak, horien xedea, iraupena, lizitazioko eta adjudikazioko zenbatekoak, erabilitako prozedura, publizitaterako erabilitako tresnak (publizitaterik izan bada), kontratazio prozeduran parte hartutakoen kopurua, adjudikazioa jaso duen pertsonaren edo entitatearen izena, sartutako klausula sozialak eta, horien artean, berdintasun klausulak. Argitara emango dira, halaber, aldaketak eta luzapenak, eta adjudikazio prozeduran atzera egiteko eta kontratuak egiteari uko egiteko erabakiak. Kontratu txikiei buruzko informazioa bi hilean behin argitaratu ahal izango da.*
- b) *Kontratazio entitateak eta organoak (datu hauek adierazita: telefonoa, posta helbidea eta helbide elektronikoa, eta kontratazio mahaien osaera), eta haien aktak eta ebazpenak.*
- c) *Sektore publikoko kontratuen legerian ezartzen diren prozeduretako bakoitzaren arabera adjudikatzen diren kontratuek aurrekontu bolumenean egiten duten ehunekoari buruzko datu estatistikoak.*

#### **1. Hitzarmenei dagokienez:**

- a) *Sinatutako hitzarmenen zerrenda. Bertan aipatuko dira alderdi sinatzaileak, xedea, iraunaldia, egindako aldaketak, hitzartutako prestazioak, hitzarmena bete behar duten subjektuak eta, halakorik bada, hitzartutako betebeharrak ekonomikoak, eta sartutako klausula sozialak, tartean berdintasunekoak.*
- b) *Kudeatzeko ardura emateko sinatutako mandatuak, horien xedea, aurrekontua, iraupena, betebeharrak ekonomikoak eta egiten diren azpikontratazioak, horien adjudikazioa jaso duten pertsonak edo entitateak, adjudikaziorako erabilitako prozedura eta adjudikazioaren zenbatekoa.*

#### **2. Dirulaguntzei dagokienez:**

- a) *Emandako dirulaguntzak eta laguntzak –deialdia aipatu behar da, edo emateko ebazpena, salbuespenezko dirulaguntzen kasuan–, haien zenbatekoa, helburua edo xedea, pertsona onuradunak eta sartutako klausula sozialak, tartean berdintasunekoak.*
- b) *Alderdi politiko, federazio, koalizio edo hautesle elkarreentzako dirulaguntzak, martxoaren 27ko 1/1987 Legeak, Lurralde Historikoetako Batzar Nagusietarako Hauteskundearen, 11. artikuluan aipatzen dituen hauteskunde gastuak finantzatzeko eman zaizkienak. Emandako zenbatekoaren azalpena egin behar da, artikulua horretan ezarritako moduan.*

## **Arabako Foru Aldundiak 25. artikuluko edukiak argitaratu ditu.**



## 2.5 Ekonomiari, finantzei eta aurrekontuei buruzko informazioa eta informazio estatistikoa

### **(26. artikulua) Ekonomiari, finantzei eta aurrekontuei buruzko informazioa eta informazio estatistikoa**

1. Foru Aldundiak eta arau honetako 3.1 artikuluan aipatzen diren gainerako erakundeek aditzera eman beharko dituzte ekonomiari edo aurrekontuei eragiten dieten informazioak, hain zuzen ere:

- a) *Aurrekontuak; aurrekontu partida nagusiak deskribatu behar dira eta haien gauzatze egoerari buruzko informazio eguneratua eta ulerterraza eman behar da, ahalik eta xehatuena eta partida guzti-guztiak deskribatuz. Aurrekontu egikaritzearen publizitatea hilerokoa izango da Arabako Foru Aldundiarentzat eta bere erakunde autonomoentzat, eta 3.1. artikuluan jasotako gainerako erakundeentzat argitalpena hiruhilerokoa izango da.*
- b) *Eman beharreko urteko kontuak, eta kanpoko kontrol organoek kontu horien gainean egiten dituzten auditoretzako eta fiskalizazioko txostenak. Urtero argitaratuko dira ondorengo finantza eta aurrekontu adierazleak, likidatutako azken aurrekontuarenak:*
  - *Superabita (edo defizita) biztanleko (doitutako aurrekontu emaitza / biztanle kopurua).*
  - *Autonomia fiskala (zerga bidezko diru sarreraren errekonozitutako eskubide garbiak / Errekonozitutako eskubide garbiak, guztira).*
  - *Foru Aldundiaren finantzatzeko gaitasunak/beharrak diru sarrera finantzarioen edo probintziako barne produktu gordinaren (BPG) gaineko kontabilitate nazionalari dagokionez ordezkatzeko duen proportzioa.*
  - *Zerga bidezko diru sarrerak biztanleko.*
  - *Inbertsioa biztanleko.*
  - *Batez besteko kobrantza aldia.*
  - *Zorpetzea biztanleko*
  - *Zorpetze erlatiboa, zorrak eta epe luzeko maileguez, guztira, diru sarrera arrunten gainean ordezkatzeko duten portzentaje gisa kalkulaturik.*
  - *Fakturak ordaintzeko batez besteko aldia.*
  - *Balio erantsiaren gaineko zergaren itzulketak egiteko urteko batez besteko epea, Hileko Itzulketen Erregistroari dagokionez.*

2. Aurrekoez gainera Arabako Foru Aldundiak informazio hauek ere argitaratuko ditu:

- a) *Aurrekontu egonkortasunaren eta finantza jasagarritasunaren arloko helburuak betetzeari buruzko informazioa.*
- b) *Bere diru sarrera eta gastuekin zerikusia duen oinarrizko informazioa: zerga sarrerak; gastua eta inbertsioa biztanleko eta udalerriko, eta hornitzaileei ordaintzeko epeak betetzearen ingurukoa.*
- c) *Foru sektore publikoaren finantzaketari buruzko oinarrizko informazioa (finantzatzeko tresnak aipatu behar dira).*
- d) *Arabako Foru Aldundiaren zorra, horren bilakaera denboran zehar, epeak eta oinarrizko ezaugarriak, biztanle bakoitzeko zorra eta zor erlatiboa; eta Aldundiak bere merkataritza sozietateei baimendutako zorpetze eragiketak.*



- e) *Abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko ekonomia eta aurrekontu araubidearenak, 100. artikuluan xedatzen duenaren arabera Arabako Foru Aldundiak emandako abalak.*
- f) *Publizitate instituzionaleko kanpainetan egindako gastu publikoa. Hautatutako euskarria eta komunikazio bidea aipatu behar dira.*
- g) *Aldundiaren eskumeneko zerbitzu publikoen betetze maila eta kalitatea baloratu ahal izateko behar den informazio estatistikoa.*

Gardentasun gehiago egoteko, herritarrentzako interesgarria izan daitekeen gainerako informazio publikoa gehitzea sustatuko da. Maiz eskatzen den informazioa ere gehitu egingo da.

**Arabako Foru Aldundiak 26. artikuluko edukiak argitaratu ditu.**



### **3. Arabako Foru Aldundiaren erakunde publikoak**

Arabako Lurralde Historiko sektore publikoaren gardentasunen, herritarren parte hartzen eta gobernu onaren 1/2017 Foru Arauaren 29. artikuluan adierazten den bezala, 3.1. artikuluan zerrendatutakoek beharrezko neurriak hartuko dituzte Gobernu Irekiaren atarian publikotasun aktiboari lotutako informazioa modu progresiboan gehitzen dela bermatzeko, ahalik eta modu zabalenean eta sistematikoenean.

Foru sektore publikoko erakundeek publikotasun aktiboarekin lotutako betebeharrak betetzen dituztela egiaztatzeko, erakunde publikoek beren webguneetan gardentasunarekin lotuta argitaratuta dituzten edukiak aztertzen dira urtean behin.

Egiaztapen hori gauzatu ostean, Foru Aldundia harremanetan jartzen da erakunde bakoitzarekin, eta adierazten dio zein eduki dituen argitaratzeko, gogorarazten dio 1/2017 Foru Arauak publikotasun aktiboarekin lotutako zein betebeharrak ezartzen dituen eta laguntza eskaintzen dio informazioa poliki-poliki eguneratzen eta argitaratzen joateko eta, era horretan, gardentasunarekiko konpromisoa betetzeko. Publikotasun aktiboaren menpe dagoen eta argitaratu behar den informazioa honako hau da: erakundeari buruzko informazioa, antolaketari buruzkoa, plangintzari eta ondareari buruzkoa, goi karguei eta erantzukizun gorena duten pertsonen buruzkoa, eta baita ekonomiari, finantzei eta aurrekontuei buruzko informazioa ere.

Hona hemen Arabako Foru Aldundiaren mendeko erakunde publikoen zerrenda eta 2020ko otsailean argitaratuta daukaten publikotasun aktiboari loturiko informazioa:

#### **3.1. Foru erakunde autonomoak**

##### **3.1.1 Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea**

- Organigrama, gauzatzen dituzten eginkizunak eta araudia Egoitza non dagoen, jendearen arretarako ordutegia eta harremanetarako bideak
- Araba Irekian argitaratutako gobernu planaren esteka
- Araba Irekian argitaratutako goi kargudunen esteka
- Kontratatuzaileen profilerako esteka
- Dirulaguntzak argitaratzeko ALHAOko esteka

##### **3.1.2 Gazteriaren Foru Erakundea**

- Informazioa eskura dago Arabako Foru Aldundiaren Gobernu Irekia atarian.

##### **3.1.3 Arabako Foru Suhiltzaileak**

- Lanpostu zerrenda



- Kontratzaileen profilerako esteka
- Aurrekontuak
- Informazio publikorako sarbidea (lotura Araba Irekia atarira)

## **3.2. Foru sozietate publikoak**

### **3.2.1 Araba Garapen Agentzia**

- Urteko aurrekontua
- Lanpostu zerrenda eta organigrama
- Goi kargudunen ordainsariak
- Urteko jarduera plana
- Informazio publikorako sarbidea (lotura Araba Irekia atarira)

### **3.2.2 Arabat - Arabako Bideak**

- Lanpostu zerrenda
- Eusko Jaurlaritzaren kontratzailearen profilerako esteka

### **3.2.3 Arabako Kalkulugunea**

- Lanpostu zerrenda
- Organigrama
- Memoria
- Kontuak
- Informazio publikorako sarbidea (lotura Araba Irekia atarira)
- Kontratazioa

### **3.2.4 Indesa 2010 SL**

- Hitzarmen kolektiboa (irakurketa errazeko bertsioa)
- Delituak Prebenitzeko Plana eta Jardunbide Profesional Egokien Eskuliburua
- Kontratzailearen profila
- Informazio publikorako sarbidea (lotura Araba Irekia atarira)

### **3.2.6 Naturgolf SA**

- Aurrekontuak
- Lanpostu zerrenda
- Goi kargudunak
- Memoria
- Informazio publikorako sarbidea (lotura Araba Irekia atarira)



## **3.2. Foru fundazio publikoak**

### **3.3.1 Arabako Artium Fundazioa**

- Plan estrategikoa eta zenbateraino bete den
- Fundazioaren jardura (osoko bilkurak, hitzarmenak eta erabakiak)
- Organigrama
- Fundazioaren estatutuak eta Etika eta Gobernu Onaren Kodea
- Aurrekontuak, urteko kontuak eta kontu ikuskaritzak
- Kontratuak eta dirulaguntzak
- Emaizten ebaluazioa (memoriak, txostenak eta abar)
- Informazio publikorako sarbidea (lotura Araba Irekia atarira)

### **3.3.2 Santa Maria Katedrala Fundazioa**

- Urteko aurrekontua
- Legezketasunari buruzko txostena
- Urteko kontuak eta kontu ikuskaritza
- Lanpostu zerrenda
- Hitzarmenak eta kudeaketa-esleipenak
- Kontratuak
- Obren memoria
- Jardueren memoria
- Informazio publikorako sarbidea (lotura Araba Irekia atarira)

### **3.3.3 Kirolaraba Fundazioa**

- Plan estrategikoa
- Lanpostu zerrenda
- Urteko aurrekontua
- Kontratuak eta dirulaguntzak

### **3.3.4 Añanako Gatz Harana Fundazioa**

- Helburuak
- Lanpostu zerrenda
- Urteko kontuak
- Urteko aurrekontua
- Kontratatailearen profila
- Hitzarmenen zerrenda
- Goi kargudunen ordainsariak
- Ondasun higiezin zerrendak
- Jasotako dirulaguntzak
- Informazio publikorako sarbidea (lotura Araba Irekia atarira)





### **3.4. Foru partzuergo publikoak**

#### **3.4.1 Urbide. Arabako Ur Partzuergoa**

- Ez dute webgunerik



## 4. Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea

Informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen egikaritzea Arabako Lurralde Historikoko Sektore Publikoaren Gardentasun, Herritarren Parte hartze eta Gobernu Onaren otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauaren 30. artikuluan dago jasota, eta pertsona fisiko eta juridiko guztiek Arabako Foru Aldundian eta foru sektore publikoa osatzen duten gainerako erakundeetan dagoen informazio publiko guztia eskuratzeko eskubidea aintzatesten da, informazioa eskatzeko justifikaziorik egin behar izan gabe.

Informazio publikoa foru sektore publikoko erakundeek (Foru Aldundiak, erakunde autonomoek, sozietate publikoek, foru fundazioek eta partzuergoek) beren funtzioak egikaritzeko sortu, aldatu edo eskuratu dutena da.

Informazio eskari horiek izapidetzeko unitateak eta ebazpen proposamenak egingo dituztenak hauek dira:

5. **Foru Aldundian:** Egitura organiko eta antolakuntzako foru dekretuan adierazitako administrazio unitateek kudeatu eta ebatziko dituzte.
6. **Foru sektore publikoko gainerako erakundeetan:** Atxikita dauden saileko administrazio unitateak, egitura organiko eta funtzionalaren arabera.

Helburua da erakunde honetako pertsona guztiek Foru Aldundiak hartutako gardentasun konpromisoak beren gain hartzea.

Eskaera ebazteko organo eskumenduna hura izapidetu duen saileko diputatu titularra da, foru agindu bidez, edo foru dekretu bidez diputatu nagusiaren kasuan. Ebazteko epea hilabetekoa izango da, eta beste hilabete luzatu ahal izango da informazio bolumenak edo konplexutasunak hala eskatzen duenean eta eskatzaileari aurretiaz horren berri emanda.


Informazio publikoa guztiz eskuratu ahal izateko printzipioa oinarri hartuta, arau orokorra gardentasuna edo sarbidea izatea izan beharko da. Hala ere, 1/2017 Foru Arauak informazio publikoa eskuratzeko eskubidea ez onartzearen eta mugatzearen arrazoien zerrenda xehatua jasotzen du. Era berean, datu pertsonalak babesteko araubidea beteko da.

Uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren bidez, diputatu nagusiak Arabako Foru Aldundiko egitura berria ezarri zuen 2019-2023 agintaldirako, eta sailak eta haien eskumen arloak finkatu zituen, eta zenbait aldaketa sartu, lehendik zeuden zuzendaritza eta administrazio unitateen egiteko, atxikipen eta mendekotasunetan.



## 4.1. 2019an jasotako eskaerak:


**2019an, informazio publikoa eskuratzeko 22 eskaera jaso dira.** Datu horren arabera, informazio publikoko eskaerak % 40 murriztu dira aurreko urtearekin alderatuta (2018an 37 eskaera izan ziren).



- Diputatu Nagusia: 3
- Ekonomia Garapena eta Lurralde Oreka: 1
- Enplegua, Merkataritza eta Turismo Sustapena eta Foru Administrazioa: 5
- Ogasun, Finantza eta Aurrekontuak: 2
- Gizarte Zerbitzuak: 1
- Nekazaritza: 5
- Bide Azpiegiturak eta Mugikortasuna: 3
- Euskera, Kultura eta Kirola: 0
- Ingurumena eta Hirigintza: 2



## Informazio eskarien eboluzioa



## 4.2. Gehien kontsultatu diren gaiak

Sailen izenak uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuak 2019-2013 legegintzaldirako onetsitako egitura berriaren arabera daude antolatuta.

- Diputatu nagusia:
  - ▶ Ikerketa lana dela eta eskatutako informazioa (unibertsitatekoa, historikoa edo kazetaritzakoa).
- Ekonomia Garapena, Berrikuntza eta Erronka Demografikoa (lehen, Ekonomia Garapena eta Lurralde Oreka)
  - ▶ Arabako enpresa txiki eta ertainen nazioartekotzean enpresen arteko lankidetzaz sustatzeko laguntza lerroa onetsi zuen Foru Gobernu Kontseiluaren erabakiari buruzko informazioa.
- Lurralde Oreka (lehen, Ekonomia Garapena eta Lurralde Oreka)
  - ▶ Ez du informazio publikoa eskuratzeko eskaerarik jaso 2019an.



- Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapena eta Foru Administrazioa:
  - ▶ EPEarekin lotutako informazio eskaerak
  - ▶ Lanpostu zerrendaren inguruko eskaera, lanpostu baten aldaketa ikusteko.
  
- Kultura eta Kirola (lehen, Euskara, Kultura eta Kirola):
  - ▶ Ez du informazio publikoa eskuratzeko eskaerarik jaso 2019an.
  
- Ogasuna, Finantzak eta Aurrekontuak:
  - ▶ Foru Ogasuneko 182 informazio aitortutako datuak ikusteko eskaera: 182 eredu aurkeztu duen politikari bakoitzak emaile gisa aitortutako pertsona fisikoen guztizko kopurua, 182 eredu aurkeztu duen alderdi bakoitzak jasotako dohaintzen edo donazioen zenbatekoa guztira.
  - ▶ Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren behin-behineko likidazioarekin lotuta, etxebizitza baten ondare irabazia kalkulatzeko moduari buruzko informazioa eskatu da (formula, aplikatutako ehunekoak eta zenbatekoak).
  
- Bide Azpiegiturak eta Mugikortasuna:
  - ▶ 1097/2018 Foru Aginduaren kopiaren eskaera
  - ▶ lekorako saihebidetari buruzko informazioa
  - ▶ A-625 errepidea 359,6 kilometro puntutik 354.2. kilometro puntura egokitzeko obrei buruzko agiriak
  
- Ingurumena eta Hirigintza:
  - ▶ Otsoa mehatxatutako espezieetat katalogatzearekin lotutako informazioa.
  - ▶ lekorako saihebidetaren proiektuarekin lotutako udalaren espedienteari buruzko informazioa.
  - ▶ Faunaren suspertegian egindako lanari buruzko txostenak.
  
- Gizarte Politikak (lehen, Gizarte Zerbitzuak):
  - ▶ GOFEn egoitzen, egoitza unitate soziosanitarioen eta Sanitas San Martin egoitzaren langile ratioari buruzko informazioa.
  
- Nekazaritza:
  - ▶ Ehizari eta kontu zinegetikoei buruzko gaiak




### 4.3. Ebazpenak:

2019an informazio publikoarekin lotutako 18 eskaera izan dira guztira eta horietako bat zati batean baietsi da. Bi eskaera ezetsi egin dira eta beste bi ez dira izapidetzeko onartu.

Informazio publikoa eskuratzeko eskariak erabat onartzea eragotzi duten arrazoiak:


- Baiespen partziala: datu pertsonalak babesteko betebeharra
- Ezetsitako eskaerak:
  - ▶ Ezestearen arrazoia izan da tributuak buruzko datuak isilpekoak direla; hain zuzen, kudeatzeko bere ardurapean dituen baliabideak edo tributuak behar bezala aplikatzeko eta kasuan kasuko zehapenak ezartzeko bakarrik erabil daitezke datu horiek, eta ezin zaizkie hirugarrenei laga edo jakinarazi, salbu eta Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak 92.1 artikuluan berariaz arautzen dituen egoeretan.
  - ▶ Merkataritza arloko isilpeko informazioa, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasunaren, herritarren parte hartzearen eta gobernu onaren otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauaren 31. artikulua arabera.
- Onartu ez diren eskaerak:
  - ▶ Eskaera ez zen informazio publikoaren ingurukoa eta, beraz, berariazko araudiaren menpe dago.
  - ▶ Eskaera zuzendu zaion organoak ez du eskatutako informazioa, eta horregatik ez da onartu eskaera.

### 2019ko ebazpenak





## Ebazpenen garapena urteka




Informazio publikoarekin lotutako eskaerak ebazteko batez besteko epea 39 egunekoa izan da 2019an.

## 4.4. Profila

- Adina: ez dakigu.
- Sexua: 11 gizon eta 9 emakume
- 2 elkarte


### Profila





## 4.5. Hizkuntza

2019an eskaera bat jaso da euskaraz eta 21 gaztelaniaz.







## Ondorioak

Jardun publikoan gardentasunaren kultura sustatzeko, hura ebaluatu beharra dago, eta hori da, hain zuzen ere, txosten honen helburu nagusia.

Erakunde bat gardena da, baldin eta aldian behin azaltzen badu zer egiten duen, nola egiten duen eta zertarako egiten duen; hau da, informazioa modu argian, agerikoan eta ulergarrian ematen badu. **Publikotasun aktiboari eta informazioa publikorako eskubideari esker, herritarrek argiago izan dezakete Foru Aldundiak gauzatzen duen jardueraren berri.**

2019ko datuak aztertuta, ikusi dugu informazio publikoarekin lotutako eskaerak % 40 murriztu direla; izan ere, 2018an 37 eskaera izan ziren, eta 2019an, aldiz, 22 besterik ez dira izan.

Eskaeren % 81 baietsi dira, eta horietako bat partzialki besterik ez da baietsi, datu pertsonalak babestu beharra zegoelako.

Ebazpena jakinarazteko legezko gehieneko epea hilabetekoa da eta, 2019an, jakinarazpenen batez besteko epea 39 egunekoa izan da.

11 gizonek, 9 emakumek eta 2 elkartek aurkeztu dituzte informazio publikoarekin lotutako eskaerak.

Eskaera gehienak gaztelaniaz egin dituzte aurten ere, eta soilik eskaeren % 5 aurkeztu dira euskaraz.

Azkenik, kontuan izanda Arabako Lurralde Historikoko gaiei behar bezalako arreta emateak eskatu lezakeela informazio publikoa eskuratzeko eskaeren ebazpenaren deskontzentrazioa, azkartasun, izapideen eraginkortasun eta efizientzia eta administrazio kudeaketa arrazoiengatik, egoki iritzi zitzaion foru sailtako titularrei planteatzea ea aukerarik dagoen eskumen hori haien sailtako zuzendaritzen esku uzteko. Orain arte, bi sailek eskuordetu dute informazio publikoarekin lotutako ebazpenen sinatzea.

1/2017 Foru Arauan agertzen diren publikotasun aktiboarekin lotutako betebeharrei dagokionez, ia osoki betetzen dira; hala eta guztiz ere, bada hobetu beharreko arlo bat: plan sektorialen ebaluazioen eta urteko planen argitalpena. Sailekin lanean ari gara hori hobetzeko.

Bestalde, nabarmendu beharra dago Gobernu Irekiaren atalean geroz eta eduki gehiago argitaratzen direla eta eguneratze eta hobekuntza prozesua etengabea da:

- Araba Irekia atariko edukiak ugaritu eta haien kalitatea optimizatzen ari gara.
- Aurrekontuak modu grafikoan laster ikusi ahal izatea aurreikusten dugu.
- Sarrien eskatzen den informazioa pixkanaka argitaratzen ari gara.

Publikotasun aktiboari dagokionez, honako berrikuntza hauek egin ditugu:



- Plan sektorialen eta jardun esanguratsuen argitalpenaren egitura hobetu dugu eta herritarren parte hartzeari buruzko atal bat jarri.
- Gardentasunaren ebaluazioaren aurkezpena hobetu dugu; hor sartzen dira informazioarako sarbidea ezesten edo mugatzen duten ebazpen guztiak, interesdunei jakinarazi ondoren.
- Gardentasun katalogoaren egitura eta bertako edukien aurkezpena hobetu ditugu.

Gainera, honako hauek egiteko lanean jarraitzen dugu:

- Araba Irekian abian jartzeko Open Data ataria; horren bidez datu irekiak eskuragarri izango dituzte herritarrek. Foru Aldundiak gardentasun irizpideen arabera jokatu behar du eta datuak eman, era horretan soilik eman baitezake egiazko informazio objektibo eta eguneratua bere jardunari buruz.
- Araba Irekian azpiguneak sortzeko tokiko erakundeentzat eta foru erakunde publikoentzat: urte osoan zehar lan teknikoetan aritu eta gero, Arabako Foru Aldundiak Gobernu Irekia atariko baliabideak eskaini diezazkieke tokiko erakundeei eta foru erakunde publikoei, nahi izanez gero publikotasun aktiboarekin eta open dataekin lotutako informazioa argitaratu dezaten.
- Informazio bisual, irudi eta grafiko gehiago sartzeko, informazioa eta datuak errazago eskuratu ahal izateko.
- Lege testuak egokitzeko, herritarrek errazago uler ditzaten.
- Argitalpen gehiago egiteko formatu berrerabilgarrietan; batez ere, datu ekonomikoei buruzko argitalpenak.
- Araba Irekia ataria etengabe berrikusten, zabaltzen eta eguneratzen dugunez gero, hobekuntza teknikoak egingo ditugu 2020an zehar, Arabako herritarrak errazago sar eta ibil daitezen atarian.
- Sektore publikoko erakundeetako zuzendaritzekin eta kudeatzailetzekin komunikazio bideak finkatzeko, publikotasun aktiboari eta informazio publikoa eskuratzeari dagokionez.
- 2020ko proposamenetako bat gida bat prestatzea da, erakunde publikoei gardentasunarekin eta gobernu onarekin lotutako betebeharrak betetzen laguntzeko.
- Gardentasuna bultzatzeko antolakuntza mailan (kargu publikoak eta langile publikoak) eta kanpoko mailan (herritarrak sentsibilizatzeko kanpainak).

Lanean jarraitzen dugu Araba Irekia atariko Informazio Publikoko Katalogoan sartzeko derrigorrezkoa izan ez arren Arabako herritarren interesekoa izan daitekeen informazio oro.

Azkenik, zeharkako gaia denez, nabarmendu beharra dago ezinbestekoa dela sail guztien lankidetzaren eta egitura dekretuz erakundean gardentasuna bultzatzeko ardura duten pertsonekin batera lan egitea. Haien ahaleginari eta lankidetzari esker gauzatzen dira informazio fluxuak eta eguneratzen dira edukiak.